

BALOREZKO PROPOSAMENA

Zer eskainiko dugun:

Salduko ditugun bolalumak hainbat zerbitzu eskainiko ditu, adibidez, informazioa bilatzeko aukera eskainiko du eta baita ere, bolalumarekin idazterakoan, idatzitakoa detektatzen du bolalumak, baina zuk aukera hori hautatuz gero, noski.

Orri batean idaztean, zuzenean internet-era sartzen da Google-n bitartez informazioa bilatuz , eta proiektore baten bidez interneteko orria azalduko da. Proiektorea boligrafoaren barruan egongo da eta botoi bat izango du, botoi hori zapalduz proiektorea ateratzeko.

Lehenik eta behin, merkatuaren azterketa bat egin dugu eta konturatu gara ez dagoela horrelako produkturik merkatuan eta produktu honek arrakasta izan dezakeela uste dugu, hainbat arrazoiengatik: kalitate onekoa izango delako, eramateko erosoia izango delako, ordenagailua baino azkarragoa izango delako, denbora irabazten laguntzen duelako eta batez ere, punta-puntako teknologia izango duelako.

Kalitatea oso ona izango da, baina bolalumen aukeren barruan gama bat edo beste egongo da zuk nahi duzuna aukeratzeko.

Beraz, kalitatea materialen aldetik eta teknologiaren aldetik ezin hobea izango da.

Gainera, eramateko oso erosoia izango da, pisu gutxi izango duelako eta edozein tokitara eraman daitekeelako inongo arazorik gabe.

Bestalde, ordenagailua baino azkarragoa izango da, bolaluma ordenagailua baino azkarrago pizten delako.

Punta-puntako teknologia izango du gure bolalumak, hau da, interneterako konexioa (WiFi-arekin), Bluetooth bidezko konexioa , USB moduko bat artxiboak gordetzeko, bolalumaren prezisioa, erretinazko pantaila...

Balore kuantitatiboa kontuan hartuz, prezioa 349,99 eurokoa izango da.

Eta balore kualitatiboa kontuan hartuta, bolalumak kolore desberdinekoak izango dira eta pantaila bat izango dute, non

idazten duzunean (zuk nahi izanez gero) Internetarekin konektatzen da.